

-/2021 FORU DEKRETUAREN proiektua, xxko xxxxaren xxxkoa, honako arau hauek aldatzen dituen: Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia; azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen duena; Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua, abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsia; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua, ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Foru dekretu honen lehenengo artikuluan jasotzen da Europar Batasuneko zuzenbidea barne-antolamenduan txertatzearen ondorioz Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean sartu diren aldaketan erregelamenduzko garapena, zehazki, honako hauen ondorioz: Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatu baitzituen 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua, zerbitzu-prestazioetarako eta ondasunen urrutiko salmentetarako balio erantsiaren gaineko zergaren zenbait betebeharrak dagokienez; eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatu baitzuen 2006/112/EE Zuzentaraua, ondasunen urrutiko salmenten gaineko eta ondasunen entrega nazional batzuen gaineko xedapenei dagokienez.

Zuzentarau horien txertaketa gure barneko ordenamendura eginda, amaitzen da merkataritza elektronikoen

erregulazioa BEZari dagokionez, eta tributazio arauak ezartzen dira ondasun-emate eta zerbitzu-prestazio hauetarako: EBko azken kontsumitzaileek eskuarki Interneten bidez eta beste bitarteko elektronikoko batzuen bidez kontratatu ondoren, enpresaburuek edo profesionalak EBko beste estatu batetik edo hirugarren herrialde edo lurralde batetik igortzen edo ematen dituztenak. Eragiketa horiek BEZari lotzen zaizkio salgaiaren helmugako estatuan edo hartzailearen egoitzaren estatuan; hortaz, areago orokortzen dute BEZa helmugan tributatzeko printzipioa mugaz haraindiko eragiketetan. Bestalde, leihatila bakarreko araubide bereziak zabaltzea da merkataritza elektronikoen BEZa kudeatzearen oinarria; izan ere, aurrerantzean, berariazko prozedura izanen da Europar Batasunean eragiketa horiek sortutako BEZa kudeatu eta biltzeko. Merkataritza elektronikoen BEZaren erregulazio berriak barnean hartzen ditu, lehendabiziko aldiz, merkataritza elektronikoa errazten duten interfaze digitalen titularrak, zeinak zergaren bilketaren, kudeaketaren eta kontrolaren beraren laguntzaile bihurtzen baitira.

Merkataritza elektronikoen BEZaren kudeaketa berriaren ondorioz, leihatila bakarreko hiru araubide berezi berri jasotzen dira BEZari buruzko Foru Legearen VIII. tituluaren XI. kapituluan. Araubide horietara aukeran biltzen ahalko dira enpresaburuak eta profesionalak, eskuarki finkatuak ez daudenak honako eragiketa hauek zergapeturik dauden EBko estatu berean: EBan ezarritako azken kontsumitzaileen alde egiten diren ondasun-emateengatik eta zerbitzu-prestazioengatik sortutako BEZa aitortzeko eta likidatzeko eragiketak.

Lehendabizi, araubide berezi berri bat gehitzen da, "Batasunaren kanpo araubidea" izenekoa, aplikatu beharko zaiena Erkidegoan finkatuak ez dauden enpresaburuek edo profesionalak enpresaburuak edo profesionalak izan gabe hala aritzen diren hartzaileei egindako zerbitzu-prestazioei.

Bestalde, araubide berezi berri bat gehitzen da, "Batasunaren araubidea" izenekoa, aplikatu behar zaiena Erkidegoan bai baina kontsumoko estatuan finkatuak ez dauden enpresaburuek edo profesionalak enpresaburuak edo profesionalak izan gabe hala aritzen diren hartzaileei egiten dizkieten zerbitzu-prestazioei, Europar Batasunaren barneko ondasunen urrutiko salmentei eta Erkidegoan finkatua ez dagoen hornitzaile batek azken kontsumitzaileei ondasun horiek entregatzea errazten duten interfaze digitalen titularrei egotzitako ondasunen barneko entreei.

Bukatzeko, araubide berezi berri bat ezartzen da, "Inportazioko araubidea", aplikatu behar zaiena hirugarren herrialdeetatik edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei, eta hari heltzen ahalko diote, zuzenean nahiz Erkidegoan finkatutako bitartekari baten bidez (eta baldintza jakin batzuetan), hirugarren herrialdeetatik edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentak egiten dituzten enpresaburuek edo profesionalak, 150 eurotik beherako berezko balioa duten igorpenetan, salbu eta zerga berezien xedeko produktuen kasuan.

Leihatilako araubide berezi horiek denek aukera emanen dute enpresaburuak edo profesionalak aitorpen-likidazio bakar baten bidez sartu ahal izan dezan Erkidegoan (kontsumoko estatu kideetan) egin dituen eragiketa guztiengatik sortutako BEZa, araubide berezia aplikatzen den hiruhileko edo hil natural bakoitzeko. Aitorpen-

likidazio hori bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko da, aukeratu den edo aplikatzekoa den Europar Batasuneko estatuko zerga administrazioari zuzendua (identifikazioko estatu kidea).

Ildo horretan, zergaren erregelamenduan, araubide bereziak aukeratu ahal izateko baldintzak eta horren ondorioak garatzen dira, eta, horrez gainera, honako hauek ere bai: araubide berezia borondatez uztea, araubidetik baztertzea eta horren ondorioak, araubide bereziak aplikatzea aukeratzen duten subjektu pasiboek dituzten formazko eta informazio betebeharrak, eta, inportazioko araubidean, bitarteko gisa jarduteko bete beharreko baldintzak eta betebeharrak, eta eragiketak zein unetan sortzen diren zehazteko arauak.

Gainera, zergaren erregelamendua aldatzen da helburu tekniko batekin: informazioa berehala emateko sistemaren barruan dauden kontsignako ondasunak saltzeko akordioak sinatzen dituzten subjektu pasiboek aukera izan dezaten Nafarroako Foru Ogasunaren web-orriaren bidez betetzeko erregistro liburuan Europar Batasunaren barruko eragiketa batzuetarako sortu den atal berriari buruzko betebeharrak, foru dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. Horrela, alde batetik, eragiketa horien gaineko informazioa emateko epea arautzen da, eta bestetik, ondasunen erregistroari buruzko informazioa osatzeko behar diren eremuak gehitzen dira.

Bestalde, BEZaren Erregelamendua aldatzen da, egokitzearren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbatespen objektiboko araubidea kentzearen ondoriozko egoera berrira eta araubide berezi erraztuan egindako aldaketetara.

Bigarren artikulua Fakturazio betebeharrak arautzeko Erregelamendua aldatzen du, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena. Aldaketaren helburu nagusia da egokitzapen batzuk egitea merkataritza elektronikoaren BEZaren gaineko araudi berrian, zehazteko faktura egin beharra zein kasutan lotu behar zaien erregelamenduaren 2. artikuluan jasotako arauari. Bestalde, zuzentzen da 2. artikuluan horretan zegoen arau baten erreferentzia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeari dagokiona, zaharkitua gelditu baita.

Hirugarren artikulua bidez, azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretua aldatzen da, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen duena, egokitzearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbatespen objektiboko araubidea kentzearen ondoriozko egoera berrira.

Laugarren artikulua bidez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua aldatzen da, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena.

Alde batetik, behar diren aldaketak egiten dira erregelamendua egokitzearen jardura ekonomikoen etekin garbia zehazteko araubideetan egindako aldaketetara (aldaketa horiek 21/2020 Foru Legearen bidez sartu dira PFEZari buruzko Foru Legean), eta, zehazki, zenbatespen objektiboaren araubidea kentzearen ondoriozko egoera berrira eta zuzeneko zenbatespen bereziaren modalitate berrira egokitzeko.

Bestalde, 6 hilabetetik 3 hilabetera murrizten da zenbait sari literario, artistiko eta zientifikoren zerga-salbuespena deklaratzeko prozedura ebazteko epea, bat

etorriaz Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

Horrez gainera, behar diren aldaketak sartzen dira gauzazko lan ordainketen araudia egokitzearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15. artikulua egitura berrira, zeina 21/2020 Foru Legearen bidez ezarri baitzen, non gauzazko lan ordainketa gehienak jarduera zergapetutzat eta salbuetsitzat hartzen baitira, lehen ez bezala (jarduera ez-zergapetuak baitziren).

Era berean, behar diren aldaketak sartzen dira zergari buruzko foru legean hainbat arlotan egindako aldaketen ondorioz, besteak beste:

- Atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinetan egin daitekeen zerga salbuespenaren gehieneko muga.

- Kendu egin da kanpoko finantzaketari buruz egiten den erreferentzia ohiko etxebizitzaren eskualdaketa onoriozko ondare-gehikuntzaren zerga salbuespenari dagokionez, gero beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen denean. Izan ere, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egiten zen kenkaria kendu denez, orain ez dago aukerarik bi onura fiskal horiek talka egiteko (kenkaria eta salbuespena).

- Kendu egin da aurreikuspen sozialeko mutualitateetako eskubide kontsolidatuak baliatzen diren kasuetarako murrizketari buruz egiten zen erreferentzia. Izan ere, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ez zaie murrizketarik aplikatzen pentsio planen prestazioei, ez eta eskubide kontsolidatuen erabilerari ere.

Bosgarren artikulua bidez, Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua aldatzen da, zuzenketa tekniko

txiki batzuk egiteko eta Tributu Ikuskapenerako Zerbitzua izendatzeko aurretiazko balorazio akordioak instruitu eta ebazteko organo eskudun gisa.

Azkenik, seigarren artikulua bidez, zenbait doikuntza tekniko egiten zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduari.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, aintzat hartuta Nafarroako Kontseiluaren txostena, eta bat etorri Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko XXXXXaren XX(e)ko bilkuran hartutako Erabakiarekin,

DEKRETATZEN DUT:

Lehen artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduaren aldaketa.

2021eko uztailaren letik aurrera, honela idatzita geldituko dira martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduaren manu hauek:

Bat. I. titulua, I. kapitulua gehitzea.

"I. kapitulua. Barneko eragiketak.

1. artikulua. Saltzaileak zeharka parte hartzea igorpenean edo garraioan.

Zergari buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da ondasunak zeharka igorri edo garraiatu dituela saltzaileak, edo beste batek haren kontura. Zehazki, hori gertatu dela ondorioztatuko da Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5.bis artikuluan araututako kasuetan (erregelamendu horren bidez,

balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezarri ziren).”

1.bis artikulua. Interfaze digital baten bidez egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak.

Zergari buruzko Foru Legearen 8.bis eta 111.bis artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da enpresaburu edo profesional batek interfaze digital baten bidez egiten duela ondasun-emate bat edo zerbitzu-prestazio bat, baldin eta betetzen badira, hurrenez hurren, Kontseiluaren 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5.ter eta 54.ter artikuluetan araututako baldintzak.”

Bi. 14. artikulua.

“14. artikulua. Ondasun-emate eta zerbitzu-prestazio jakin batzuk ez zergapetzeko aukera.

Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 68.Lau artikuluan jasotako ondasun-emateen kasuan eta lege beraren 70.Bat.8 artikuluan jasotako prestazio-zerbitzuen kasuan, enpresaburuek edo profesionalek aukeratzen badute jarduera horiengatik tributazioa egitea zergaren aplikazioaren lurraldetik kanpo, lege horren beraren 73. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, justifikatu beharko dute zerga administrazioaren aurrean ezen, bai egindako entregak nola emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko beste estatu batean aitortu direla, salbu eta eragiketa horiek, zergaren ondorioetarako, Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluaren 3. atalean jasotako araubide bereziari loturik badaude.

Justifikazio hori egiteko, zehazki, sortutako edo zorpetutako BEZa Europar Batasuneko estatu horretan



ordaindu izanaren egiaztagiriak edo horren aitortpen-likidazioa egin izanaren egiaztagiriak aurkezten ahalko dira.

Bi urte naturalen buruan, enpresaburuak edo profesionalak aukera horiek berretsi beharko ditu; bestela, automatikoki errebokatuak geldituko dira”.

Hiru. III.bis titulua gehitzea. Hona hemen testua:

“III.BIS TITULUA Sortzapena

14.bis artikulua. Sortzapena.

Zergari buruzko 24.3 eta 108.sexvicies artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, bezeroaren ordainketa zein unetan onartzen den zehazteko, hurrenez hurren, Kontseiluaren 282/2011 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 41.bis artikuluan eta 61.ter artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Lau. 22.1 artikuluari azken-aurreko paragrafoa kentzea.

Bost. 25. artikulua.

“25. artikulua. Araubide erraztua kentzea.

1. Hauek dira araubide erraztua kentzea dakarten inguruabarrak:

Lehena. Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak jarduera bakoitzerako ezartzen dituen mugak gainditzea. Horrek ondorioak izanen ditu, muga zein urtetan gainditzen den, hurrengo urtetik aurrera, salbu eta jarduera hasten den kasuetan; izan ere, horrelakoetan, jarduera hasten den unetik aurrera aterako da araubide erraztutik. Behin arrazoi honengatik baztertuak egon ondoren hurrengo ekitaldietan muga horiek gainditzen ez dituzten subjektu pasiboak araubide berezi erraztuan sartuko dira, non eta horri uko egiten ez dioten.

Bigarrena. Araubide berezi erraztua aplikatzeko eremu objektiboari buruzko arauak aldatzea, eta, horren ondorioz, erabakitzea araubide hori ez zaiela aplikatu behar subjektu pasiboak egindako enpresa jarduerari. Horrek ondorioak izanen ditu eremu objektiboa aldatzeko arauan ezartzen den unetik aurrera.

Hirugarrena. Araubide berezi erraztuari, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubideari edo baliokidetasun errenerguko araubideari lotuta ez dauden jarduerak egitea. Dena dela, ez da araubide berezi arruntetik ateratzeko arrazoia izanen subjektu pasiboak beste jarduera batzuk egitea, baldin eta horiek garatzean Zergari buruzko Legearen 17. artikulua aplikatzearen ondorioz salbuetsiak dauden eragiketak besterik egiten ez baditu, edo ondasun higiezinaren errentamenduak badira eta, horren ondorioz, enpresa-jarduera bat garatzen ari dela hartzerik ez badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko testu bateginaren 33.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina).

2. Aurreko zenbakiko 3. inguruabarrak inguruabarra gertatu eta hurrengo urtetik aurrera izanen ditu ondorioak, salbu eta subjektu pasiboak ez badu aurretik enpresa edo lanbide jarduerarik egin; kasu horretan, bazterketak jarduera horiek hasten diren unetik izanen ditu ondorioak.

3. Subjektu pasiboaren zerga egoera egiaztatu edo ikertzeko lanaren ondorioz, zerga arloan eskumena duen departamentuak egiaztatzen badu araubide erraztutik baztertze moduko inguruabarren bat gertatu dela, araubide berezira igarotzeko behar den erregulazioari ekinen dio."

Sei. 26. artikulua.

"26. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Araubide erraztua zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen enpresa eta lanbide jardueri aplikatuko zaie, salbu eta subjektu pasiboek uko egiten badiote araubide horri edo hura aplikatzenetik salbuetsiak badaude.

2. Araubidea aplikatuko da zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu batean ezartzen diren baldintza eta betebeharrekin bat.

3. Araubide erraztua aplikatzearen ondorioetarako, jarduera independentetzat hartuko dira araubide hori arautzen duen foru aginduan berariaz jasotzen direnak.

4. Jardueretako bakoitzean sartutako eragiketa ekonomikoak zehazteko, jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko arauei jarraikiko zaie, arau horiek aplikagarriak diren heinean, betiere.

Zazpi. 27. artikulua.

"27. artikulua. Araubide erraztuaren edukia.

1. Sartu beharreko kuoten zehaztapena, Zergari buruzko Foru Legearen 68.Bat.A) artikuluan aipatzen dena, subjektu pasiboak berak egin beharko du. Horretarako, sortutako kuoten zenbateko osoa kalkulatu beharko du, bere jarduera ekonomikoari egotziz zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak, jarduera bakoitzerako eta dagokion urteari dagokionez, zehazten dituen indize eta moduluak. Zenbateko horretatik kentzen ahalko ditu 68.Bat.A) artikuluaaren bigarren paragrafoan aipatutako ondasun eta zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuotak.

Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak, aurreko paragrafoan adierazitakoaren kalkulua garatzeko prozeduraren barruan, zilegi izanen du sartu beharreko gutxieneko kuota bat ezartzea araubide berezia aplikatzen den jarduera bakoitzerako.

2. Araubide erraztua aplikatzen duten jardueretan suterik, uholderik edo sektore edo eremu zehatz bati eragiten dioten ohiz kanpoko gorabeherarik gertatzen bada, zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak, salbuespen gisa, indizeak edo moduluak murriztea baimentzen ahalko du.

3. Araubide erraztua aplikatu behar zaien jardueretan suterik, uholderik, hondoratzerik edo ekipo industrial horietan matxura handirik edo gisa horretako ohiz kanpoko inguruabarririk gertatzen bada eta horrek jarduerari gorabehera larriak ekartzen badizkio, interesdunek zilegi izanen dute indize edo moduluak murrizteko eskatzea zerga arloko eskumena duen departamentuan, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte, bidezkoak iruditzen zaizkien frogak aurkeztuz. Gorabeherak urteko azken hilabetean gertatuz gero, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkezten ahalko da eskaera.

Gorabehera horien egiazkotasuna zerga administrazioan frogatzen bada, indize edo moduluetan bidezko murriztapena egitea erabakiko da.

Gainera, aurreko paragrafoan adierazitako prozedura berari jarraikiz, zilegi izanen da indizeen edo moduluen murriztapena eskatzea jardueraren titularra aldi baterako ezintasun egoeran edo jarduteko legez desgaiturik egon bada 30 egun natural baino gehiago jarraian, eta, betiere, bi kasutan, beste enplegatu bat ez badauka. Horixe bera eskatzen ahalko da jarduera geldiarazten bada ezinbesteko

arrazoiengatik ondoz ondoko 30 egun natural baino gehiago. Aurreko kasuetan, murriztapena eskatzeko, 30 egun naturaleko epea izanen da, adierazitako egoera horietako batean 30 egun natural jarraituko epea bete eta biharamunetik hasita.”

Zortzi. 28. artikulua.

“28. artikulua. Diru-sarreraren aldizkakotasuna.

Araubide erraztua erabiltzen duten subjektu pasiboek urte natural bakoitza bukatutakoan zehaztuko dituzte Zergari buruzko Foru Legearen 68.Bat.A) artikulua arabera sartu beharreko kuotak. Dena dela, urteko lehenengo hiru hilekoei dagozkien aitorpen-likidazioetan, emaitza horren zati bat konturako sarreraren bidez ordainduko da. Zati hori kalkulatu da zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen duen prozedurari jarraikiz.

Zergari buruzko Foru Legearen 68.Bat.B) artikuluan aipatzen diren eragiketen likidazioa eginen da zerga sortzen den likidazio aldiari dagokion aitorpen-likidazioan. Nolanahi ere, subjektu pasiboak zilegi izanen du paragrafo honetan azaldutako eragiketak likidatzea urte naturaleko azken likidazio aldiari dagokion aitorpen-likidazioan.”

Bederatzi. 29,1. artikulua.

“1.a) Araubide erraztuari atxikitako subjektu pasiboek jasotako fakturen erregistro liburu bat eraman behar dute, non jasoko baitituzte ondasunen eta zerbitzuen eskurapen eta inportazioei buruzko fakturak eta dokumentuak, baldin ondasun eta zerbitzu haiengatik zerga jasan edo ordaindu bada eta ondasun eta zerbitzu horiek erabiltzekoak badira araubide berezi hori aplikagarri duten jardueretan.

Erregistro liburu horretan jaso beharko dira, behar bezala bereizita, Zergari buruzko Foru Legearen 68.Bat.B) eta C) artikuluan aipatzen diren aktibo finkoen inportazioak eta eskurapenak, eta, halaber, azken horiei dagokienez, erregularizazioak egiteko behar diren datu guztiak, erregularizaziorik egin behar bada.

b) Subjektu pasiboek araubide erraztua aplikatzekoa ez duten beste jarduera batzuk egiten dituztenean, jaso beharko dituzte, behar bezala bereizita, jardueraren sektore bereizi bakoitzari dagozkion eskurapenen fakturak.

c) Subjektu pasiboak araubide erraztuari atxikita badaude diru-sarreraren bolumenaren arabera indize edo moduluak dituzten jarduerak egiteagatik, erregistro liburu bat ere eraman beharko dute, jarduera horietan egindako eragiketak jasotzeko.”

Hamar. 30. artikulua.

“30. artikulua. Aitorpen-likidazioak.

1. Araubide erraztuari lotutako subjektu pasiboek lau aitorpen-likidazio aurkeztu beharko dituzte, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehazten duen eredu espezifikoaren arabera.

2. Aitorpen-likidazioak hiru hilean behingoak aurkezteko ezarrita dauden epe beretan aurkeztuko dira, 62.4 artikuluan adierazten den bezala.”

Hamaika. 31,1. artikulua.

“1. Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak behar diren indizeak, moduluak eta gainerako parametroak onetsiko ditu, Zergari buruzko Foru Legearen 68.Bat artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.”

Hamabi. 32.2.a) artikulua, eta c) letra kentzea.

“a) Aurre-aurreko urtean, hartan sartutako jardueri buruzko eragiketa guztiak harturik, 250.000 euroko muga gainditzen duten subjektu pasiboak.”

Hamahiru. 32.3.a) artikulua.

“a) Zerga arloan eskumena duen departamentuak zehazten dituen nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza jarduera guztiei dagokienez, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia eta araubide erraztua aplikatzen ahal zaien jarduerak betetzean egindako eragiketen kasuan, hauexek baino ez dira konputatuko: 29.1.c) eta 36.1 artikuluetan aipatutako erregistro liburuetan idatzi behar direnak.”

Hamalau. VIII. titulua, IX. kapitulua.

“IX. kapitulua. Urrutiko salmentei eta barneko ondasun-  
emate eta zerbitzu-prestazio batzuei aplikatu beharreko araubide bereziak.

50.duodecies artikulua. Definizioak.

Kapitulu honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) “Batasunaren kanpo araubidea”: Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluaren 2. atalean araututako araubide berezia.

b) “Batasunaren araubidea”: Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluaren 3. atalean araututako araubide berezia.

c) “Inportazioko araubidea”: Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluaren 4. atalean araututako araubide berezia.

50.terdecies artikulua. Aukera eta ukoa. Ondorioak.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren araubide berezietako bat baliatzeko, araubide berezietan hasi izanaren aitordpena aurkeztu beharko da identifikaziorako estatu kidearen zerga administrazio eskuduneari. Eskaberaren ondorioak egun hauetan hasiko dira:

a) Aitorpen hori aurkeztu eta ondoko hiruhileko naturalaren lehenengo egunetik aurrera, Batasunaren kanpo araubidearen kasuan eta Batasunaren araubidearen kasuan; edo

b) Enpresaburuari edo profesionalari, edo haien kontura aritzen den bitartekoari, zergaren ondorioetarako identifikazio zenbaki indibiduala (inportazioko araubidekoa) esleitzen zaion egunetik aurrera.

Identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma baldin bada, hasi izanaren aitordpena Zergari buruzko Foru Legearen 108. noniesdecies, 108. duovicies eta 108. septivicies artikuluetan arautzen da.

Hori gorabehera, Batasunaren kanpoko araubidean edo Batasunaren araubidean, enpresaburuak edo profesionalak araubide berezi horietan sartutako eragiketak hasten baditu a) letran aipatutako eragin-eguna baino lehen, kasuan kasuko araubide bereziak ondorioak izanen ditu lehenengo ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa egiten den egunetik aurrera, betiere enpresaburuak edo profesionalak hasi izanaren aitordpen hori aurkezten badu hasiera-egunaren ondoko hilabeteko hamargarren egunean, beranduenik.

Apartatu honetan ezarritakoak ez du galarazten identifikaziorako estatu kidearen zerga administrazio eskudunak kapitulu honetan azaldutako araubide berezietan erregistroa ukatzeko duen ahalmena, enpresaburuak edo



profesionalak araubide horietan sartzeko baldintzak betetzen ez baditu.

2. Kapitulu honetan azaldutako edozein araubide bereziri borondatez uko egiteko, araubide berezietatik ateratzeko aitorpena aurkeztu beharko da identifikaziorako estatu kidearen zerga administrazio eskudunean, epe hauetan:

a) Araubide berezia erabiltzeari utzi behar zaion hiruhileko naturalaren aurreko hiruhileko naturala bukatu baino hamabost egun lehenago, eta ondorioak izanen ditu araubidetik ateratzeko aitorpen hori aurkezten den hiruhileko naturalaren hurrengo hiruhilekoaren lehenengo egunetik aurrera, hala Batasunaren kanpo araubidean nola Batasunaren araubidean.

b) Inportazioko araubidea erabiltzeari utzi behar zaion hilabetearen aurreko hilabetea bukatu baino hamabost egun lehenago, eta ondorioak izanen ditu araubidetik ateratzeko aitorpen hori aurkezten den egunaren hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera. Kasu horretan, enpresaburuak edo profesionalak baimena galduko du araubide berezia erabiltzeko egun horretatik aurrera egiten dituen ondasun-emateetarako.

Bitartekariaren identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma den kasuetan, inportazioko araubideari loturiko enpresaburuaren edo profesionalen kontura jarduteari bukaera ematen badio, erabaki horren berri eman beharko dio identifikaziorako estatu kidearen zerga administrazioari, bitartekari gisa jarduteari utzi nahi zaion hilabete naturalaren aurreko hilabete naturala bukatu baino hamabost egun lehenago.

Identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma den kasuetarako, jarduteari uzteko aitorpena Zergari buruzko Foru Legearen 108. noniesdecies, 108. duovicies eta 108. septivicies artikuluetan arautzen da.

3. Erkidegoan establezimendua duen enpresaburu edo profesional batek edo, hala badagokio, bitartekari batek, bere jarduera ekonomikoa estatu kide batetik bestera lekualdatzen duenean edo, identifikaziorako estatu kidean establezimendua utzita ere, Erkidegoan establezimendua izaten jarraitzen badu, eta Batasunaren araubide bereziei edo inportazioko araubideari lotuta segitzeko baldintzak betetzen baditu, establezimendua utzi duen identifikaziorako estatu kidean aurkez dezake uzteko aitorpena, eta estatu kide berri batean aurkeztu hasiera-aitorpen berri bat, egoitza edo establezimendu iraunkorraren aldaketa gertatzen den egunean.

Ondasun-emateak egiteko Batasunaren araubidea erabiltzen duen enpresaburuak edo profesionalak Erkidegoan finkatua egoteari uzten dionean, ondasunen bidalketaren edo garraioaren abiapuntua den estatu kide bat adieraziko du identifikaziorako estatu kide gisa.

Identifikaziorako estatu kidearen aldaketak gertatzen den egunean izanen ditu ondorioak, betiere enpresaburuak edo profesionalak edo, hala badagokio, haien kontura aritzen den bitartekariak aurkezten badio identifikaziorako estatu kide ukitu bakoitzari behar den aitorpena, identifikaziorako estatu kidearen aldaketaren berri ematen duena. Aitorpen hori epe hauetan aurkeztu beharko da: egoitzaren edo establezimendu iraunkorraren aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunera bitarte, edo enpresaburuak edo profesionalak estatu kide horretatik ondasunak bidaltzeari edo garraiatzeari uzten

dion egunetik hasi eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunera bitarte.

4. Aurreko 3. zenbakian adierazitako kasuetan, eta betiere identifikaziorako estatu kidearen aldaketa gertatzen bada kasuan kasuko likidazio epearen lehenengo egunetik aurrera, enpresaburuak edo profesionalak, edo haien kontura aritzen den bitartekariak, identifikaziorako bi estatu kideetan aurkeztu beharko du aldaketa gertatzen den hiruhilekoari edo hilabete naturalari dagokion zergaren aitorpen-likidazioa, kontuan hartuta epe horretan identifikaziorako estatu kidea izan den estatu kide bakoitzean egindako eragiketak.

50. quaterdecies artikulua. Kanpoan uztea eta ondorioak.

1. Enpresaburu edo profesional bat kapitulu honetan azaldutako araubide berezietatik kanpo uzteko erabakia identifikaziorako estatu kideak baino ez du hartuko. Erabaki hori enpresaburuari edo profesionalari jakinarazi beharko zaio, posta elektronikoaren bidez, eta ondorioak honela kontatuko dira:

a) Jakinarazpen hori egin eta hurrengo hiruhileko naturalaren lehenengo egunetik aurrera, Batasunaren kanpo araubidearen kasuan eta Batasunaren araubidearen kasuan; edo

b) Jakinarazpen hori egin eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera, inportazioko araubidearen kasuan, salbu eta araubidetik kanpo gelditzen bada araubidearen arauak behin eta berriz urratzeagatik; izan ere, kasu horretan, jakinarazpenaren egunaren biharamunean hasiko dira ondorioak.

Enpresaburuak edo profesionalak bitartekari baten bidez aritzen badira, hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera bitartekaria kanpo uzteko erabakiak berekin ekarriko du bitartekariaren bitartez ari diren enpresaburuak edo profesionalak inportazioko araubidetik ateratzea. Arrazoi hori dela-eta enpresaburuak edo profesionalak araubidetik kanpo utziz gero, banan-banan jakinaraziko zaie, eta ondorioak hasiko dira jakinarazpenaren datatik hasi eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, zeinahi delarik bitartekaria kanpo uzteko arrazoaia.

Aurrekoa gorabehera, araubidetik kanpo gelditzearen arrazoaia jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzea denean, edo enpresaburuak edo profesionalak ondasunak bidali edo garraiatzeko abiapuntu gisa erabiltzen duen lekua aldatzea, aldaketa hori gertatzen den egunetik aurrera izanen ditu ondorioak, betiere enpresaburuak edo profesionalak egoitzaren edo establezimendu iraunkorraren aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren eguna baino lehen (egun hori barne) aurkezten badio identifikaziorako estatu kide ukitu bakoitzari aldaketaren aitorpena, identifikaziorako estatu kidearen aldaketaren berri ematen duena.

2. Inportazioko araubideari lotuta dagoen enpresaburu edo profesional baten kontura aritzen den bitartekari bat kanpo uzteko erabakia identifikaziorako estatu kideak baizik ez du hartuko. Erabaki hori posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio, eta ondorioak izanen ditu jakinarazpenaren egunaren hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik hasita.

Hori hala izanik ere:

a) Araubidetik kanpo gelditzearen arrazoaia jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra

aldatzea denean, aldaketa hori gertatzen den egunetik aurrera izanen ditu ondorioak, betiere enpresaburuak edo profesionalak egoitzaren edo establezimendu iraunkorraren aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren eguna baino lehen (egun hori barne) aurkezten badio identifikaziorako estatu kide ukitu bakoitzari aldaketaren aitorpena, identifikaziorako estatu kidearen aldaketaren berri ematen duena; edo

b) Araubidetik kanpo gelditzeko arrazoa araubide horren arauak behin eta berriz urratzea izan bada, ondorioak hasiko dira jakinarazpen horren egunaren biharamunetik aurrera.

Nolanahi ere, bitartekoak ordezkutzen duen enpresaburu edo profesional bakoitzak araubideari lotuta dagoen azken hilabete naturalaren aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du.

3. Araubide berezi horietatik baztertzeke arrazoiak hauexek dira:

a) Enpresaburuak edo profesionalak araubidea uzteko aitorpena aurkeztea, araubide berezietatik edozeinetan sartutako eragiketak egiteari utzi diolako; horretarako, enpresaburuak edo profesionalak egoera gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren eguna baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko dio aitorpen hori identifikaziorako estatu kideari.

Identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma den kasuetarako, jarduteari uzteko aitorpena Zergari buruzko Foru Legearen 108. noniesdecies, 108. duovicies eta 108. septivicies artikuluetan arautzen da.

b) Egitate aski izatea ondorioztatzeko enpresaburuak edo profesionalak utzi diola araubide berezietako edozeini

lotutako jarduerak egiteari. Hori gertatu dela ondorioztatuko da baldin eta enpresaburuak edo profesionalak ez badu araubide bereziei lotutako eragiketarik egiten kontsumoko estatu kidean bi urteko epean.

c) Araubide berezi horietan sartzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea.

d) Araubide berezi horietako araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriro ez betetzea; halaxe gertatuko da, besteak beste, kasu hauetan:

a') Aurreko hiru aitorten aldietan enpresaburuari edo profesionalari jakinarazpenak edo oroitze-oharrak bidali izana aitorten bat aurkeztu beharra jakinarazteko, eta zergaren aitortena aurkeztu ez izana hamar eguneko epean, oroitze-ohar edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen den egunetik kontatzen hasita;

b') Aurreko hiru aitorten aldietan enpresaburuari edo profesionalari jakinarazpenak edo oroitze-oharrak bidali izana ordainketa bat egin beharra jakinarazteko, eta diru kopuru osoa ordaindu ez izana hamar eguneko epean, oroitze-ohar edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen den egunetik aurrera, salbu eta aitorten bakoitzari dagokion kopurua, zorretan duena, 100 eurotik beherakoa bada;

c') Enpresaburuak edo profesionalak bere betebeharrak hau ez betetzea: bere erregistroak identifikaziorako estatu kidearen eskura edo kontsumoko estatu kidearen eskura ez jartzea bide elektronikoa erabiliz, identifikaziorako estatu kideak igorritako oroitze-oharra edo jakinarazpena egiten denetik hilabeteko epean.

d') Inportazioko araubideari lotutako enpresaburuak edo profesionalak behin eta berriz erabiltzea araubide berezia

150 eurotik gorako balio intrinsekoa duten ondasunak inportatzeko, edo zerga bereziei lotutako ondasunak inportatzeko.

e) Inportazioko araubideari lotuta egonda bitartekari baten bidez jarduten duten enpresaburu edo profesionalen kasuan, bitartekariak zerga administrazioari jakinaraztea haien ordezkaria izateari utzi diola; horretarako, bitartekariak erabaki hori jakinarazi beharko dio identifikaziorako estatu kideari, beranduenik, egoera hori gertatzen den egunaren hurrengo hilabeteko hamargarren egunean.

Araubidetik kanpo gelditzeko arrazoa aurreko d) letrak aipatzen dituen kasuek eragin badute, erabakiak gutxienez bi urterako ondorioak izanen ditu, araubidetik kanpo uztearen eragin-egunetik hasita, eta hiru araubide bereziei eraginen die.

4. Hauexek dira inportazioko araubideari loturiko enpresaburu edo profesional baten kontura aritzen den bitartekaria araubidetik baztertzeiko arrazoiak:

a) Bi hiruhileko naturaletan ez jardutea bitartekari gisa.

b) Bitartekari gisa aritzeko beharrezkoak diren baldintzak ez betetzea.

c) Araubide berezi horretako araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriro ez betetzea; halaxe gertatuko da, besteak beste, kasu hauetan:

a') Aurreko hiru aitorpen aldietan bitartekoari jakinarazpenak edo oroitze-oharrak bidali izana aitorpen bat aurkeztu beharra jakinarazteko, eta zergaren aitorpena aurkeztu ez izana hamar eguneko epean, oroitze-ohar edo

jakinarazpen bakoitza bidaltzen den egunetik kontatzen hasita;

b´) Aurreko hiru aitorten aldietan bitartekoari jakinarazpenak edo oroitze-oharrak bidali izana ordainketa bat egin beharra jakinarazteko, eta diru kopuru osoa ordaindu ez izana hamar eguneko epean, ohar edo jakinarazpen bakoitza bidaltzen den egunetik aurrera, salbu eta aitorten bakoitzari dagokion kopurua, zorretan duena, 100 eurotik beherakoa bada;

c´) Bitartekoak bere betebeharrak ez betetzea: bere erregistroak identifikaziorako estatu kidearen eskura edo kontsumoko estatu kidearen eskura ez jartzea bide elektronikoa erabiliz, identifikaziorako estatu kideak igorritako oroitze-oharra edo jakinarazpena egiten denetik hilabeteko epean;

d´) Bitartekaria sarturik egotea Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorraren 144.4.c) artikuluan ezarritako egoeraren batean (erregelamendu hori uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Goiko c) letran adierazitako kasuan, bitartekariak ezin izanen du bitartekari gisa aritu araubide berezitik ateratzen den hilabetetik hasi eta hurrengo bi urteetan.

5. Batasunaren kanpo araubidetik edo Batasunaren araubidetik baztertzen diren enpresaburu eta profesionalek zuzenean ordaindu beharko dizkiote kasuan kasuko kontsumoko estatu kidearen zerga arloko agintaritzari balio erantsiaren gaineko zergari lotutako betebeharrak guztiak, hain zuzen, bazterketak ondorioak dituen egunetik aurrera



sortzen diren ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio guztiei dagozkienak.

50. quinquiesdecies artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

Araubide berezi horietako edozeini atxikitako enpresaburuak edo profesionalak, edo horien kontura aritzen den bitartekariak, aldaketaren aitorpen bat aurkeztu beharko dio identifikaziorako estatu kideko zerga administrazio eskudunari aurretik emandako informazioan edozein aldaketa gertatzen bada; aitorpen hori kasuko aldaketa gertatu ondoko hilabeteko hamargarren eguna baino lehen aurkeztu beharko da (egun hori barne).

Identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma den kasuetarako, aldaketari buruzko aitorpena Zergari buruzko Foru Legearen 108. noniesdecies, 108. duovicies eta 108. septivicies artikuluetan arautzen da.

50. sexiesdecies artikulua. Betebehar formalak.

1. Batasunaren kanpo araubideari eta Batasunaren araubideari loturiko enpresaburuek eta profesionalak araubide berezi horietan sartutako eragiketen erregistroa eraman beharko dute, kontsumoko estatu kideko zerga administrazioak zergaren aitorpenean sartutako datuak egiaztatzeko behar bezain zehatza. Horretarako, erregistro horretan informazio hau jaso beharko da:

a) Kontsumoko zein estatu kidean egin diren eragiketak.

b) Egindako zerbitzu-prestazioa zein motatakoa izan den, edo emandako ondasunen deskribapena eta kopurua.

c) Eragiketa egiteko eguna.

d) Zerga-oinarria, erabilitako moneta adierazita.

e) Zerga-oinarrian ondoren izandako gehikuntza edo murriztapen guztiak.

f) Aplikatutako zerga-tasa.

g) Zerga zorra, erabilitako moneta adierazita.

h) Jasotako ordainketen data eta zenbatekoa.

i) Eragiketa egin aurretik jasotako aurrerakin guztiak.

j) Fakturan ageri den informazioa, faktura eman baldin bada.

k) Bezeroaren establezimendua non dagoen zehazteko erabili den informazioa, edo haren helbidea edo ohiko bizilekua, zerbitzu-prestazioen kasuan, eta, ondasun-erateen kasuan, ondasunen bidalketa edo garraioa non hasi eta non bukatzen den zehazteko erabilitako informazioa.

l) Ondasunen balizko itzulketak egiaztatzeke frogak, barne direla zerga-oinarria eta aplikatutako zerga-tasa.

2. Inportazioko araubideari lotutako enpresaburuek eta profesionalek, edo haien kontura aritzen diren bitartekariak, araubide berezi horretan sartutako eragiketen erregistroa eraman beharko dute, kontsumoko estatu kideko zerga administrazioak zergaren aitorpenean sartutako datuak egiaztatzeke behar bezain zehatza. Horretarako, erregistro horretan informazio hau jaso beharko da:

a) Kontsumoko zein estatu kidean entregatu diren ondasunak.

b) Entregatutako ondasunen deskribapena eta kopurua.

c) Ondasunak entregatzeke eguna.

d) Zerga-oinarria, erabilitako moneta adierazita.

e) Zerga-oinarrian ondoren izandako gehikuntza edo murriztapen guztiak.

f) Aplikatutako zerga-tasa.

g) Zerga zorra, erabilitako moneta adierazita.

h) Jasotako ordainketen data eta zenbatekoa.

i) Fakturan ageri den informazioa, faktura eman baldin bada.

j) Bezeroarentzako ondasunen bidalketa edo garraioa non hasi eta non bukatzen den zehazteko erabilitako informazioa.

k) Ondasunen balizko itzulketak egiaztatzeke frogak, barne direla zerga-oinarria eta aplikatutako zerga-tasa.

l) Eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra.

m) Igorpen zenbaki bakarra, enpresaburuak edo profesionalak zuzenean parte hartzen badu entregan.

3. Aurreko apartatueta jasotako informazioa gorde behar da halako moduan non berehala eskuratzen ahalko baita bide elektronikotik, egindako eragiketa bakoitzerako bereizirik; gainera, kontsumoko estatu kidearen eskura eta identifikaziorako estatu kidearen eskura egonen da.

4. Faktura ematea bidezkoa denean, identifikaziorako estatu kideko arauekin bat egingen da.

Identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma baldin bada, faktura egiteari eta emateari begira, Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduari jarraikiko zaio (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendua).

50. septiesdecies artikulua. Inportazioko araubidean bitartekari gisa jarduteko baldintzak eta betebeharrak.

Operadore batek bitartekari gisa jardun ahal izateko Espainiako Erresuman inportazioko araubidearen ondorioetarako, bere gain hartuz araubidearen eskubideak eta betebeharrak Zergari buruzko Foru Legearen 108.quinvicies.2.b) artikuluan ezarritako moduan, baldintza hauek bete beharko ditu:

Lehen. Zergari buruzko Foru Legearen 109.1 artikuluaen Bigarren puntuan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia izatea.

Bigarrena. Zergaren aplikazio eremuan ezarrita egotea.

Hirugarrena. Bitartekari gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko lau urtean kondentua edo zehatua ez izana, epai irmo baten bidez edo administrazio ebazpen irmo baten bidez, Ogasun Publikoaren kontrako delitu bategatik, edo zerga arloko arau-hauste larri bat egitegatik bere jarduera ekonomikoari loturik.

Betebehar hori betetzen dela ondorioztatuko da baldin eta pertsona hauetariko bat ere ez badago aurreko paragrafoan azaldutako egoeran bere jarduera ekonomikoari dagokionez, eskatzailearen jarduera ekonomikoa barne dela, kasua bada:

a) Operadorea,

b) Aduanako eta/edo tributu arloko gaiez arduratzen d(ir)en enplegatua(k),

c) Operadoreaz arduratzen diren pertsonak edo haren zuzendaritza kontrolatzen dutenak.

Aurrekoa gorabehera, betebehar hori betetzen dela ondorioztatzen ahalko da baldin eta zerga administrazioak uste badu arau-haustea ez dela garrantzitsua, kontuan hartuz hari loturiko eragiketen kopurua eta tamaina, eta

eskatzailearen fede onari buruz inolako zalantzarik ez badu.

Hirugarren puntuko c) atalean aipatutako pertsona, operadorea izan gabe, hirugarren herrialde batean finkatua badago edo egoitza han baldin badu, zerga administrazioak ebaluatu beharko du noraino betetzen den irizpide hori, eskura dituen erregistroetan eta informazioan oinarriturik.

Operadoreak lau urte baino gutxiago badarama hirugarren herrialde batean finkaturik, zerga administrazioak ebaluatu beharko du noraino betetzen den irizpide hori, eskura dituen erregistroetan eta informazioan oinarriturik.

Laugarrena. Finantza-kaudimena; behar bezala egiaztatua dagoela ondorioztatuko da operadoreak bere konpromisoak betetzeko moduko finantza-maila duenean, kontuan harturik kasuan kasuko jarduera motaren ezaugarriak.

Betebehar hau betetzen dela ondorioztatuko da eskatzaileak baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Konkurtso-prozedura batean sarturik ez egotea;
- b) Aduana eta tributu zorren ordainketari lotutako finantza-betebeharrak ordainduak izatea, bitarteko gisa jarduteko eskaera aurkeztu aurreko lau urteetan;
- c) Eskaera aurkeztu aurreko lau urteetarako eskura dauden erregistroak eta informazioa oinarri harturik, frogatuta egotea finantza-gaitasun nahikoa duela bere merkataritza jardueren izaerari eta bolumenari loturiko betebeharrak eta konpromisoak betetzeko; eta, bereziki, aktibo garbi negatiborik ez izatea, salbu eta estaltzeko modukoak badira.

Operadoreak lau urte baino gutxiago badarama finkaturik, finantza-kaudimena ebaluatuko da eskura dauden erregistroetan eta informazioan oinarriturik.

Betebehar horiek betetzen direla hartuko da operadoreak operadore ekonomiko baimenduaren izaera baldin badu, bat etorritz Batasunaren Aduana Kodearekin eta haren aplikazio xedapenekin.

Zerga administrazioak zilegi du inportazioko araubidearen ondorioetarako bitartekari izaera ukatzea baldin eta operadoreak ez baditu betetzen goian ezarritako baldintza guztiak."

Hamabost. 53,2. artikulua.

"2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen honako araubide berezi hauek dituzten jardueri dagokienez: araubide berezi erraztua, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia eta baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia; betiere, araubide berezi horien arauetan ezarritako salbuespenekin. Orobat, aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen Zergari buruzko Foru Legearen 5.1.e) artikuluan aipatutako pertsonen garraiobide berriak entregatzen dituztenean noizbehinka".

Hamasei. 53.bis artikulua, testua gehitzea.

"53.bis artikulua. Eragiketen erregistroa.

1. Enpresaburu edo profesional batek, hala arituz, interfaze digital bat erabiltzean, hala nola online merkatu bat, plataforma bat, atari bat edo antzeko baliabide batzuk, ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak errazten dizkienean enpresaburua edo profesionala izan gabe hala aritzen direnei, baldin eta ez bada ondasun-emate edo

zerbitzu-prestazio horien subjektu pasiboa, beharturik egonen da eragiketa horien erregistroa eramatera.

Erregistroa behar bezain zehatza izanen da, zerga administrazioak egiaztatu ahal izateko zerga ongi aitortu ote den. Datu hauek jaso beharko ditu:

a) Interfaze elektronikoaren bidez eskaintzen diren ondasun-emate edo zerbitzu-prestazioen hornitzailearen izena, posta helbidea eta helbide elektronikoa edo webgunea, eta, eskuragai izanez gero, baita datu hauek ere:

a') Hornitzailearen identifikazio zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, edo identifikazio fiskaleko zenbaki nazionala; eta

b') Hornitzailearen banku-kontuaren zenbakia edo kontu birtualaren zenbakia;

b) Ondasunen deskribapena eta balioa, bidalitako edo garraiatutako ondasuna non eta noiz entregatuko den, eta, eskuragai baldin badago, eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra;

b) Zerbitzuen deskribapena eta balioa, prestazioa non eta noiz egingen den zehazteko informazioa, eta, eskuragai baldin badago, eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra.

2. Aurreko apartatuan zehaztutako erregistroa interesa duten estatu kideen eskura egonen da bide elektronikotik, aurretik eskatuz gero.

Hamar urtez eduki beharko da erregistro hori, eragiketa zer urtetan egiten den, urte hori bukatzen denetik hasita."

Hamazazpi. 57.2.B) artikulua: a) Bosgarrena eta b) Bosgarrena eta Seigarrena.

"Bosgarrena. Zergari buruzko Foru Legearen 9.bis artikulua 3.b) Lehenengo puntuan adierazten den enpresaburuaren edo profesionalaren -hasiera batean ondasunen helburu zen enpresaburua edo profesionala ordeztu duen horren- identifikazio zenbakia balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako, eta, orobat, ordezkapena egiten den data."

"Bosgarrena. Saltzaileak biltegitik kendu eta jadanik bere eskura ez dauden ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, eta zein egunetan erretiratu diren."

Seigarrena. Biltegitik desagertu edo suntsitu diren ondasunen deskribapena, kopurua eta balioa, eta zein egunetan gertatu zen edo deskubritu zen ondasunen suntsipena, galera edo lapurreta."

Hemezortzi. 60.bis.1.c) artikulua.

"c) 57.1 artikulua Lehenengo eta Bigarren puntuetan aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean emanen da, bidalketa edo garraioa hasteko unetik hasita, edo, bidezko bada, eragiketen xede diren ondasunak jasotzen diren unetik hasita."

57.1. artikulua Hirugarren puntuan aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa bidali beharko da, ondasunak biltegitik zein egunetan iristen diren, eskuratzaileraren eskura zein egunetan jartzen diren edo erregistratu beharreko eragiketa noiz egiten den, hurrengo hilabetearen 16a baino lehen."

Hemeretzi. 62,3. artikulua.

"3. Likidazio aldia hiruhileko naturala da."



Dena dela, egoera hauetako batean dauden enpresaburu edo profesionalen kasuan, likidazio aldia hilabete naturala izanen da:

Lehena. Aurre-aurreko urte naturalean 6.010.121,04 eurotik gorako eragiketak egin dituztenak. Eragiketen zenbatekoa Zergari buruzko Foru Legearen 66. artikuluan xedatutakoari jarraituz kalkulatu behar da.

Bigarrena. Zergari buruzko Foru Legearen 66.1 artikulua bigarren paragrafoan aipatzen den enpresa- edo lanbide-ondare bat osorik edo partez eskuratu dutenak, baldin eta aurreko urte naturalean egin dituen eragiketen bolumena eta epe horretan berean ondare horren eskualdatzaileak eskualdatutako ondarea erabiliz egindako eragiketen bolumena, biak baturik, 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan bada.

Apartatu honetan ezarritakoa aplikatuko da eskualdaketa hori gertatzen den unetik aurrera, eta ondorioak izanen ditu eskualdaketa egin den likidazio aldia bukatu eta biharamunetik aurrera.

Zergari buruzko Foru Legearen 66. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-ondare osoaren edo haren zati baten eskualdaketat hartuko da halako eskualdaketa non eskualdatzailearen jardueraren adar bat edo batzuk osatzen duten ondare-elementuak sartzen diren, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 76.4 artikuluan aurreikusitako bezala, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 116.4 artikuluan aurreikusitako bezala; kontuan hartu gabe eskualdaketa ez zergapetzeko kasuren bat aplikatzen ahal zaion Zergari buruzko Foru Legearen 7. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena. Erregelamendu honen 20. artikuluan aipatzen direnak, hots, likidazio aldi bakoitza bukatutakoan haien aldeko saldoa itzul diezaietela eskatzeko baimena dutenak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da are subjektu pasiboari itzuli beharreko kuotarik ez badago ere.

Laugarrena. Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko IX. kapituluan arautzen den entitate taldearen araubide berezia aplikatzen zaienak."

Bigarren artikulua. Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren aldaketa.

2021eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren manu batzuk aldatu, eta honela idatzita gelditu dira:

Bat. 2. artikulua, 2. apartatuaren c) eta f) letrak eta 3. apartatua.

"c) Araubide erkideko Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legearen 68. artikuluen Hiru.a) eta Bost ataletan aipatzen diren ondasun-emateak, agindu horietan aipatutako arauak aplikatzean, zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzen direnean. Dena dela, ondasun-emate horiei aplikatu behar zaienean Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluko 3. atalean aipatzen den araubide berezia eta identifikaziorako estatu kidea ez bada Espainiako Erresuma, identifikaziorako estatu kideak zehaztuko du faktura egin beharra dagoen."

"f) Eragiketen hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jokatzeko ez duten pertsona juridikoak direnean, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuak izan edo ez, edo

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikulua aipatzen dituen administrazio publikoak.”

“3. Faktura egiteko betebeharra, aurreko ataletan azaldu dena, erregelamendu honetan ezarritako araei jarraikiz beteko da, kasu hauetan:

a) Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluan aipatutako araubide bereziak aplikatu behar zaizkien eragiketen kasuan, identifikaziorako estatu kidea Espainiako Erresuma denean.

b) Goiko a) letran adierazitakoez bestelako eragiketetan, baldintza hauek betetzen badira:

a´) Ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzea, salbu ondasunaren hornitzailea edo zerbitzuaren emailea aipatu lurraldean finkatua ez dagoenean, zergaren subjektu pasiboa zergapetutako eragiketa horren hartzailea denean eta azken horrek faktura egiten ez duenean erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b´) Hornitzailea edo zerbitzu-emailea zerga aplikatzen den lurraldean finkatua egotea edo bertan establezimendu iraunkor bat izatea, edo, bestela, bere ohiko bizitokia edo helbidea bertan izatea, eta bertatik egitea ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, eta ondasun-emate edo prestazio hori, aplikatzen zaizkien lokalizazio araei jarraituz, ez hartzea zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat, kasu hauetan:

a´´) Eragiketa Europar Batasuneko kide den beste estatu bati lotua dagoenean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta faktura ez duenean azken

horrek egiten ondasun hornitzailearen edo zerbitzu-emailearen izenean eta kontura.

b´´) Eragiketa Erkidegotik kanpo egindakotzat jotzen denean.”

Bi. 4.4 artikulua, b) eta d) letrak.

“b) Araubide erkideko Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Legearen 68.Hiru.a) artikuluan aipatzen diren ondasun-emateak, salbu eta aplikagarri zaienean Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko XI. kapituluaren 3. atalean aipatutako araubide berezia, agindu horretan aipatutako arauak aplikatuz zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartzen direlako.”

“d) 2. artikuluko 3.b) b´) atalean aipatzen diren ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak.”

Hiru. 6,3. artikulua.

“3. Erregelamendu honen 2.3.b)b´)a´´) artikuluan aipatu eragiketak direnean, faktura egitera behartua dagoenak 1. apartatuko f), g) eta h) letretan adierazitako informazioa eman gabe uzten ahalko du, eta, horren ordez, ondasun edo zerbitzu horiengatik zergari lotuta dagoen zenbatekoa adierazi, hornitutako ondasunen edo egindako zerbitzuen kopurua edo tamaina eta haien izaera aipatuz.”

Lau. 26.1 artikulua.

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, enpresa edo lanbide jardueretatik etekinak lortzen badituzte, behartuak egonen dira faktura eta kopia egitera, beren jardueran egindako eragiketengatik, erregelamendu honetan aurreikusitako moduan, zein den ere haien araubidea balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Hirugarren artikulua. Azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen da eta zerga edukia duten beste arau batzuk aldatzen dira.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharreko aitorpenentzako ondorioekin, honela idatzita geldituko da 69/2010 Foru Dekretuaren 2.b) artikulua lehengo paragrafoa:

“b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren errenta-egozpenaren araubidean dauden pertsona fisikoak eta entitateak, zerga hori zuzeneko zenbatespenaren araubidearen modalitate bereziaren bidez ordaintzen duten jarduerengatik, baldin eta, aldi berean, jarduera horiei dagokien balio erantsiaren gaineko zerga araubide berezi erraztuan edo nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errenerguko araubidean ordaintzen badute, salbu eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako faktura luzatzen duten eragiketengatik.”

Laugarren artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamendua aldatzea.

Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduaren manu batzuk aldatzen dira, eta honela idatzita geldituko dira:

Bat. 1.2. artikulua Bosgarren puntua, azken paragrafoa.

“Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Epe horretan organo eskudunak berariazko ebazpenik ematen ez badu, eskaera ezetsitzat jotzen ahalko da.”

Bi. 2.3 artikulua indargabetzea; aurrerantzean, orain arteko 4. apartatuaren edukia 3. apartatua izanen da.

Hiru. 5.2 artikulua, lehen paragrafoa.

"2. Atzerrian egindako lanei dagozkien ordainsarien zenbatekoa kalkulatzeko, langileak egiaz atzerrian emandako egunak hartuko dira kontuan, bai eta atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak ere."

Lau. 8.B).3 artikulua.

"3. Zinpekogaiek eta zinpeko titular eta ordezkoez beren eginkizunak betetzeagatik jasotzen dituzten diru kopuruak ez dira zergapetuko, bat etorritz martxoaren leku 385/1996 Errege Dekretuan ezarritakoarekin, ez eta Hauteskunde mahaietako kideek jasotzen dituztenak ere, bat etorritz Hauteskunde mahaietako kideen dieta arautzen duen martxoaren 7ko INT/282/2019 Aginduan ezarritakoarekin."

Bost. 13.bis artikulua indargabetzea.

Sei. 23. artikulua, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"23. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueretako etekinak zehazteko araubideak.

1. Zergari buruzko Foru Legearen 34.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, enpresa edo lanbide jardueretako etekinak zuzeneko zenbatespenaren araubidea erabiliz zehaztuko dira, non modalitate hauek bereizten diren:

- a) Arrunta
- b) Erraztua
- c) Berezia

2. Subjektu pasiboek horietako modalitatearen bat aplikatuko dute, kontuan hartuz aplikazio mugak eta

bateraezintasunerako, uko egiteko eta baztertzeko arauak, Zergari buruzko Foru Legean eta erregelamendu honetan ezarrita daudenak.”

Zazpi. 24. artikulua indargabetzea, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

Zortzi. 27. artikulua, b) eta c) letren lehen paragrafoa, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“b) Enpresa edo lanbide jardueri atxikitako elementuen kasuan, atxikita egon diren zergaldietan jardueraren etekin garbia zehaztu bada zuzeneko zenbatespenaren araubide arrunta edo erraztua erabiliz, elementuak bere balio-bizitzan duen balio osoa estaltzearren legez hartutako irizpidearen arabera konputatu beharko zatekeen amortizazioaren kopurua, benetan gastu kengarri gisa hartzen den gorabehera.”

“c) Enpresa jardueri atxikitako ibilgetu materialaren eta higiezinetakako inbertsioen elementuen kasuan, atxikita egon diren zergaldietan jardueraren etekin garbia zehaztu bada zuzeneko zenbatespenaren araubide berezia edo zenbatespen objektiboko araubidea erabiliz, 26. artikuluan adierazitako gehieneko amortizazio epearen ondoriozko koefizientea aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.”

Bederatzi. II. kapituluko 3. atalaren 3. azpiatalaren errubrika, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“3. azpiatala. Zuzeneko zenbatespen erraztua eta zuzeneko zenbatespen berezia”

Hamar. 28. artikulua, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

"28. artikulua. Uko egitea eta baztertzea

1. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubide erraztua eta berezia aplikatuz kalkulatzeari uko egin nahi izanez gero, ondorioak zein urte naturaletan hastea nahi den, aurreko urteko abenduan egin beharko da, edo, jardueraren hasieraren kasuetan, jarduera hasi eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean.

Ukoak hiru urterako ondorioak izanen ditu, gutxienez. Epe hori bukatuta, ondorioztatuko da ukoa isilbidez luzatzen dela modalitate hori aplika litekeen hurrengo urteetarako, urtez urte, salbu eta aurreko paragrafoan adierazitako epean ukoa errebokatzen bada.

Ukoak ondorioak izan behar dituen urtearen aurre-aurreko urtean gainditzen bada kasuan kasuko modalitatea aplikatzeko finkatutako gehieneko negozio-zifra, ukoa ez aurkeztutzat joko da.

Ukoa eta errebokatzea zerga arloan eskumena duen departamentuak onesten duen ereduarekin bat datorren aitorpenaren bidez aurkeztuko dira.

2. Zergari buruzko Foru Legearen 36. artikuluan A).1 eta B.1) letretan ezarritako gehieneko negozio-zifrak gainditzeak berekin ekarri du zuzeneko zenbatespenaren araubidearen modalitate erraztutik eta modalitate berezitik baztertzea, hurrenez hurren.

Muga hori zein urtetan gainditzen den, hurrengo urtean izanen ditu ondorioak bazterketak.

3. Baztertzeako arrazoia izanen da, orobat, Zergari buruzko Foru Legearen 35.2 artikuluan ezarritako bateraezintasuna, hantxe ezarritako ondorioekin.



4. Zuzeneko zenbatespenaren araubide erraztuari uko egiteak edo hortik baztertzeak berekin ekarriko du subjektu pasiboak araubide arrunta erabiliz zehaztu beharra bere enpresa edo lanbide jarduera guztien etekin garbia.

5. Zuzeneko zenbatespenaren araubide bereziari uko egiteak edo hortik baztertzeak berekin ekarriko du subjektu pasiboak araubide erraztua erabiliz zehaztu beharra bere enpresa edo lanbide jarduera guztien etekin garbia.”

Hamaika. 29. artikulua, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“29. artikulua. Errentak eratxikitzeko araubideko entitateak.

1. Zuzeneko zenbatespenaren araubide erraztua eta berezia aplikatzen ahalko dira Zergari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan aipatzen diren entitateek egindako enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia kalkulatzeko, baldin eta:

Lehena. Entitatearen bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak zerga honen subjektu pasibo diren pertsona fisikoak badira.

Bigarrena. Entitateak Zergari buruzko Foru Legearen 36. artikulua A).1 eta B).1 letretan ezarritako betebeharrak betetzea, hurrenez hurren.

2. Ukoa bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek egin beharko dute, 28. artikuluan xedatutakoarekin bat.

3. Modalitate erraztua edo berezia aplikatuko da zein diren ere bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzarengan biltzen diren inguruabarrak.

Hamabi. 30. artikulua indargabetzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hamahiru. 31. artikulua indargabetzea, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

Hamalau. II. tituluko II. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatala indargabetzea, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

Hamabost. 40,3. artikulua.

“3. Berrinbertsioaren zenbatekoa kalkulatzearen ondorioetarako, kontuan hartuko dira etxebizitza eskuratzeko edo birgaitzeko ordaindutako kopuruak, eskuratzaillearen kontura izan diren gastuak barne.”

Hamasei. 41. artikulua, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“41. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueri atxikitako elementuak berrinbertitzeagatiko salbuespena.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 37.5.b) artikuluan ezarritako baldintza betetzeko, enpresa edo lanbide jardueretan aritzen diren subjektu pasiboek, baldin eta jarduera horien etekin garbia kalkulatzeko badute zuzeneko zenbatespenaren araubide arrunta edo araubide erraztua erabiliz, inbertsio ondasunen erregistro liburuan jaso beharko dute berrinbertsioa zein elementutan gauzatu den, gainerako elementuetatik bereiziz, argi identifikatu ahal izateko.

Gainera, zergaren aitorpenetan, berrinbertitutako errentei buruzko datu guztiak adierazi beharko dituzte, bai eta berrinbertsio horiek zein elementutan gauzatu diren ere.

Beren jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubide berezia erabiliz kalkulatzeko duten subjektu

pasiboek aurreko paragrafoan aipatutako datuak baizik ez dute adierazi beharko kasuan kasuko zerga aitorpenetan.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeak salbuespena osorik edo hein batean galtzea ekarriko du. Kasu horretan, subjektu pasiboak ez-betetzea gertatzen den zergaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean sartu beharko du salbuespena aplikatu zeneko ekitaldian zegokion kuota osoaren zenbatekoa, berandutze-interesak barne.”

Hamazazpi. 44. artikulua indargabetzea, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

Hemezortzi. 45. artikulua, lehen paragrafoa, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“Zergari buruzko Foru Legearen 15.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko erakundeek, enpresek edo enplegu emaileek erabakitako ikasketak, haiek beraiek zuzenean nahiz zeharka finantzatuak daudenak beren langileak eguneratu, gaitu edo birziklatzeko asmoz, baldin eta beharrezkoak badira langileek beren jarduerak betetzeko edo lanpostuak dituen ezaugarriengatik, are beste pertsona edo entitate espezializatu batzuek ematen dituztenean ere. Kasu horietan, lokomozio, mantenu eta ostatu gastuei dagokienez, 8. artikuluan ezarritakoak aginduko du.”

Hemeretzi. 46 artikulua, errubrika, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“46. artikulua. Enpresen jantokietako gastuak”

Hogei. 46.1 artikulua, lehen paragrafoa, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

"1. Zergari buruzko Foru Legearen 15.3.a) artikuluan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, enpresen jantokietan merkeago egindako entregatzat hartuko dira zerbitzua emateko zeharkako eta zuzeneko formulak, lan arloko legerian onartutakoak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:"

Hogeita bat. 47.1 artikulua, lehen paragrafoa, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

"1. Jarduneko langileei akzioak edo partaidetzak ematea salbuetsita egonen da Zergari buruzko Foru Legearen 15.3.e) artikuluan ezarritako baldintzak eta honako hauek betetzen direnean:"

Hogeita bi. 47.bis artikulua, 2021eko urtarrilaren letik aurrera izanen ditu ondorioak.

"47.bis artikulua. Bidaiari-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa ordaintzeko zeharkako formulak.

1. Zergari buruzko Foru Legearen 15.3.c) artikuluan ezarritako salbuespenaren ondorioetarako, bidaiari-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa emateaz arduratzen diren entitateei zeharka ordaintzeko formulatzat hartuko da langileei honako baldintza hauek betetzen dituzten txartelak edo ordainketarako beste baliabide elektronikoko batzuk entregatzea:

Lehena. Bidaiari-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa erabiltzeko aukera ematen duten garraio-tituluak eskuratzeagatiko kontraprestazio gisa, eta ez beste ezertarako, erabili ahal izatea.

Bigarrena. Zenbakiturik egotea, izendunak izatea eta enpresa jaulkitzailearen izena agertzea.

Hirugarrena. Eskualdaezinak izatea.

Laugarrena. Haien errenboltsorik jaso ezin izatea, ez enpresarengandik ez hirugarrenengandik.

Bosgarrena. Txartelak edo ordainketarako baliabide elektronikoak entregatzen dituen enpresak enplegatu edo langile bakoitzari emandakoaren zerrenda egitea eta gordetzea, honako hauek adierazita:

a) Agiri zenbakia.

b) Urtero langilearen eskura jartzen den kopurua.

2. Ordaintzeko zeharkako formula hauen bidez lortutako gauzako ordainsarrietatik salbuetsitako zenbatekoa ezin da izan 136,36 eurotik gorakoa hilero langile bakoitzeko, ez eta 1.500 eurotik gorakoa ere urte osoan."

Hogeita hiru. 48. artikulua, Lehena, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Lehena. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 8.8 artikuluan aurreikusitakoak ez bezalako kasuetan, eskubide kontsolidatuak erabiliz gero, lan-etekintzat hartuko dira."

Hogeita lau. 54. artikulua, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"54. artikulua. Enpresa eta lanbide jardueretako kenkarien muga.

Zergari buruzko Foru Legearen 64.2 artikuluan aipatzen diren enpresa eta lanbide jardueretako kenkarien mugak aplikatuko dira kuota osoari foru lege horren 62. artikuluko kenkariak kenduta ateratzen den kuota likidoaren

gainean, artikulua bereko 3. apartatuan ezarritakoaren salbuespenarekin.

Hogeita bost. 61. artikulua, 5. apartatuaren lehenengo paragrafoa, 6. apartatua, 8. apartatua eta 9. apartatua, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"5. Lanbide jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek erregistro liburu hauek eraman beharko dituzte:"

"6. Beren enpresa jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubide bereziaren bidez zehazten duten subjektu pasiboek 3. apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako erregistro liburuak eraman beharko dituzte, salbu eta kontabilitatea Merkataritza Kodeari jarraikiz eramaten badute."

"8. Kontabilitatea Merkataritza Kodeari jarraikiz eramaten duten subjektu pasiboak ez daude behartuak artikulua honen aurreko apartatueta ezarritako erregistro liburuak eramatera.

9. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrari baimena ematen zaio ezartzeko zein den artikulua honetan aipatzen diren erregistro liburuak eramateko modua."

Hogeita sei. 62.17.A).a) artikulua.

"a) Urte bakoitzeko abenduaren 31n entitate juridikoen funts berekietako edo kapitaleko akzio eta partaidetzen titularrak diren pertsonen edo entitateen izen-deiturak edo sozietatearen helbidea edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin eta akzio edo partaidetza horiek merkatu antolatuetan negoziatzen badira. Halaber, titular horien akzio eta partaidetzen kopurua, mota eta balio nominala adieraziko dira, Ondarearen gaineko Zergari

buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.”

Hogeita zazpi. 64.1.c).d’) artikulua, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“d’) Erregelamendu honen 78.6 artikuluan aurreikusitako enpresa jarduerak, non etekin garbia zehazten baita zenbatespen objektiboaren araubidea edo zuzeneko zenbatespenaren araubide berezia erabiliz.”

Hogeita zortzi. 78.6 artikulua, 2021eko urtarrilaren letik aurrerako ondorioekin.

“6. Lehena. Etekinak lortu badira Bigarren puntuan adierazitako enpresa jardueretako baten kontraprestazio gisa, eta horien etekin garbia kalkulatzeko bada zenbatespen objektiboa erabiliz edo zuzeneko zenbatespenaren araubide berezia erabiliz, ordaindutako diru-sarrera osoen %leko atxikipen tasa aplikatuko da.

Bigarrena. Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da jarduera hauei edo jarduera-sektore hauei dagokienez:

EJZ	JARDUERA EKONOMIKOA
722	Salgaien errepideko garraioa.
757	Aldaira zerbitzuak.

Hirugarrena. Ez da zilegi izanen apartatu honetan aurreikusitako atxikipena egitea baldin eta enpresa jarduera egiten duen subjektu pasiboak ordaintzaileari jakinarazten badio jarduera horren etekin garbia kalkulatzeko duela zuzeneko zenbatespenaren araubide arrunta edo araubide erraztua erabiliz.

Jakinarazpen horretan datu hauek jasoko dira:

a) Berri-emailearen izena, abizenak, zerga-egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Enpresa jarduera gauzatzen bada errentak eratzekitzeko araubideko entitate baten bidez, gainera, entitatearen sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi beharko ditu, baita haren ordezkari izaera ere.

b) Bigarren puntuan adierazitako jardueretatik zein enpresa jardueratan aritzen den, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafea zehaztuta.

c) Jarduera horren etekin garbia kalkulatzeko duela zuzeneko zenbatespenaren araubide arrunta eta erraztua erabiliz.

d) Data eta berri-emailearen sinadura.

e) Jakinarazpenaren hartzailea den pertsonaren edo entitatearen identifikazioa.

Gero batean subjektu pasiboak berriz ere kalkulatzeko baditu jarduera horren etekinak zenbatespen objektiboaren araubidea erabiliz edo zuzeneko zenbatespenaren araubide berezia erabiliz, horren berri eman beharko dio ordaintzaileari, a), b), d) eta e) letretan adierazitako datuekin batera, atxikipena egiteko betebeharra sortu baino lehen.

Nolanahi ere, ordaintzaileak datu-jakinarazpen guztiak gorde beharko ditu, behar bezala sinatuak.

Laugarrena. Hirugarren puntuan adierazitako datuak zuzen jakinarazteko betebeharra ez betetzeak Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutako zerga ondorioak izanen ditu.

Bosgarrena. Zenbatespen objektiboaren araubideari edo zuzeneko zenbatespenaren araubide bereziari uko egiten



bazaio F-65 eredia betez edo Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduaren 22.1 artikulua laugarren paragrafoan ezarrita dagoen moduan, ulertuko da subjektu pasiboak bere enpresa jardueraren etekin garbia zehazten duela araubide arrunta edo erraztua erabiliz F-65 eredia edo balio erantsiaren gaineko zergaren aitortze-likidazioa aurkezten duen egunetik aurrera.”

Hogeita bederatzi. 92. artikulua, Bat. Lehen modalitatea, b) eta c) letrak.

“b) Etekin garbiak 12.000,01 eta 24.000 euro bitartekoak izan badira, % 12.

“c) Etekin garbiak 24.000,01 eta 36.000 euro bitartekoak izan badira, % 18.”

Hogeita hamar. 92. artikulua, Bat, Bigarren modalitatea, gaur egun 3. apartatuak duen testua 2. apartatura eramanen da, eta 3. apartatua kenduko da, 2021eko urtarrilaren lehenetik aurrerako ondorioekin.

Bosgarren artikulua. Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua aldatzea.

Abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko zergaren Erregelamenduaren manu hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 23.1 artikulua, bigarren paragrafoa.

“Prozeduraren tramitazioa eta ebazpena Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari dagozkio.”

Bi. 28.C) artikulua, bigarren paragrafoa.

“Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari dagokio prozedura hastea, tramitatzea eta zerga arloko beste administrazio batzuekin bidezko diren harremanak ezartzea.”

Hiru. 35,2. artikulua.

"2. Aurretiazko akordioa loteslea izanen da eta gutxienez honako hauek jasoko dituen agiri batean formalizatuko da:

a) Formalizazioaren tokia eta eguna.

b) Zergadunaren izen-deiturak edo sozietate-izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zergadunaren adostasuna akordioaren edukiarekin.

d) Proposamenak aipatzen duen eragiketaren deskribapena.

e) Aplikatzekoa den murrizketaren portzentajea ezartzeko aurretiazko akordioa dagoenean, adostutako portzentajea eta, kasua bada, aktiboaren lagapenarekin lotutako sarreren eta gastuen balorazioa, edo aktiboaren eskualdaketan sortutako errenten balorazioa, adieraziz zein diren erabilitako balorazio metodoaren funtsezko elementuak, eta, horrekin batera, aplikaziorako oinarritzotzat jo behar diren inguruabar ekonomikoak.

f) Akordioaren indarraldia eta indarra hartzeko data."

Lau. 38.1 artikulua, azken paragrafoa.

"Eskabidearen ereduari eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Interneten duen tramiteen katalogoaren fitxan eskura dauden ereduak erabiliko dira."

Seigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduaren aldaketa.

Ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduaren manu batzuk aldatzen dira eta honela idatzita geldituko dira:

Bat. 23.8 artikulua, lehen eta bigarren paragrafoak.

"8. 13/2000 Foru Legearen 38. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira salbuespenezko kasutzat, besteak beste:"

Bi. 40. artikulua 3. eta 4. puntuak.

"3. Sartu eta ikuskatu nahi den lekua zergapekoaren bizilekua bada, konstituzioak babestua dagoena, eta interesdunaren adostasuna ez badago, epaileen baimena eduki beharko da, 13/2000 Foru Legearen 131.2 artikuluan ezarri bezala.

4. Ulertuko da interesduna edo finken zaintzailea ados dagoela sartzearekin edo ikuskatzearekin baldin eta eragiketa horiek gauzatu ahal izateko normalean behar izaten diren ekintzak, bere esku daudenak, egiten baditu. Dena dela, konstituzioak babestutako egoitza batean sartu eta ikuskatu nahi bada, interesdunari berariaz galdetuko zaio ea baimentzen duen bertan sartzea, eta dagozkion eskubideak jakinaraziko zaizkio."

Hiru. 63.1 artikulua, bigarren paragrafoa.

"Horren ondorioetarako, zenbat ikuskapen akta irekitzen diren, horrenbeste zehapen espediente hasiko dira, bat etorritz erregelamendu honen 49. artikuluan ezarritakoarekin, deusetan galarazi gabe kasu batzuetan, arau-haustea baloratzeko arrazoiak edo inguruabarrak antzekoak direnean, espedienteak metatu ahal izatea hasiera, instrukzio eta ebazpen faseetan. Nolanahi ere,

ebazpenean zehapenak banaka-banaka ezarriko dira, zehapen espedienteen ebazpenaren aurka edo ikuskapen akten ondoriozko likidazioen aurka jar daitezkeen errekurtsoen ondorioetarako.”

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek indarra hartuko du, bertan aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.